

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILEKO INGURUMENEO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN OHARRAK, IRADOKIZUNAK, ALTERNATIBAK ETA PROPOSAMENAK, BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONESPENEN DOKUMENTUEI BURUZKOAK.

OBSERVACIONES, SUGERENCIAS, ALTERNATIVAS Y PROPUESTAS DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE (DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL) A LOS DOCUMENTOS DE APROBACIÓN INICIAL DE LA REVISIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL DE BILBAO METROPOLITANO.

2021eko urriaren 18an, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak (**Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia**) hasierako onespeneren dokumentazioa bidali zien interesa zuten administrazio publiko guztiei. Igortze horren helburua da interesdun horiek erreferentziako espedienteetan 2021eko abenduaren 23ra arte oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak telematikoki egin ahal izatea.

Con fecha de 18 de octubre de 2021, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial (**Dirección General de Desarrollo Territorial**) remite la documentación de la aprobación inicial a todas las administraciones públicas interesadas, al objeto de que hasta el 23 de diciembre de 2021 puedan formular sus observaciones, sugerencias, alternativas y propuestas, de modo telemático en el expediente de referencia.

Proposatutako dokumentazioa aztertu da:

- A dokumentua. Memoria eta eranskinak.
- B dokumentua. Antolamendu-arauak eta eranskinak.

Se realiza un análisis de la documentación propuesta:

- Documento A.- Memoria y anexos
- Documento B.- Normas de ordenación y anexos

Aldez aurretik, **Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuak (Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia)** bi txosten jaulki ditu Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenera izapidetzean:

Previamente el **Servicio de Calidad Ambiental (DG de Medio Ambiente)** ha emitido dos informes en la tramitación de la Revisión del Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano:

a) Txostena, 2018ko uztailaren 10ekoa, organo sustatzailak Berrikuspeneraren Aurrerapenari buruz egindako kontsultari erantzunez.

a) Informe fechado el 10 de julio de 2018 en respuesta a consulta del órgano promotor respecto al Avance de la Revisión.

b) Txostena, 2018ko uztailaren 13koa, ingurumen-organoren kontsultari erantzunez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako izapidetzearen barruan.

b) Informe fechado el 13 de julio de 2018 en respuesta a consulta del órgano ambiental dentro del trámite previsto en el artículo 19 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

Jaulki diren txostenak kontuan hartuta eta ondore horretarako emandako web orrian eskuragarri dagoen dokumentazioa aztertuta, uste da bidezkoa dela honako hau adieraztea:

Considerando los informes previamente emitidos y analizada la documentación disponible en la página web proporcionada, se considera oportuno señalar lo siguiente:

1) Hasierako Onarpenaren dokumentuak 8 urteko bizitegi-kuantifikazioaren kalkuluak egiten ditu, 21.512 etxebizitzako bizitegi-beharrrizana lortuz eta, harrotze-faktorea aplikatu ondoren, gehienez 51.154 etxebizitzako bizitegi-ahalmena proposatuz. Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan

1º) El documento de Aprobación Inicial realiza los cálculos de cuantificación residencial a 8 años vista, obteniendo una necesidad residencial de 21.512 viviendas y proponiendo, tras aplicar un factor de esponjamiento, una capacidad residencial máxima de 51.154 viviendas. Según lo establecido en las

ezarritakoaren arabera, egoitza-ahalmen handiagoak ere balidatu daitezke.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak kalkulatzeko metodoa aplikatzearen azken ondorioa da azkenean hirigintza-plangintzak behar-beharrezkoa dena baino askoz bizitegi-garapen handiagoa proposatuko duela. Azken batean, lurralde-plangintzan erabilitako gehieneko bizitegi-ahalmena kalkulatzeko metodoak ez du garapen jasangarria sustatzen, baliabideen kontsumo handiagoa sustatzen baitu eta, ziurrenik, lurzoru gehiago okupatzea eragingo du eta horrek mugikortasun behartu handiagoa eragingo du.

2) Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenaren helburu nagusien artean daude lurzoru berrien kalifikazioa saihestea eta beharrianen eta etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintzaren artean hiri-habitaten eredu orekatuagoa ezartzea, hain zuzen ere natura- eta landa-inguruneari eragitea eta lursail berriak urbanizatzea saihestuko duena.

Hala ere, Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenak ez du saihestuko lursail berrien kalifikazioa eta urbanizazioa. Berrikuspen horrek hiri-hazkundeko perimetro handi bat mugatzen du, justifikaziorik gabe eta, perimetro horrek, ondorio praktikoetarako, ez du mugatzen barrualdeko lursail berrien okupazioa eta, berariaz, lurzoru naturala okupatzeko garapen berriak planteatzen ditu: Ortuellan, 30 hektarea inguruko lurzoru publikoko sektore bat proposatzen da, Alonsotegin Montealegre eremua, Zamudion Zamudioko Parke Teknologikoa lurzoru urbanizaezinean handitzea Agarre eremuan eta Getxon 12 hektarea inguruko azalera jarduera ekonomikoetarako.

Horri dagokionez, berrikuspenak koherentea izan beharko luke bere helburuekin, eta hiri-hazkundeko perimetro berria mugatu beharko luke, zehatza eta behin betikoa, barnean lursail berrien okupazioa mugatuko lukeena eta lurzoru naturalaren gainean proposatutako garapenak baztertuko lituzkeena.

3) Berrikuspenaren Aurrerapenari buruz organo sustatzaileak egindako kontsultari erantzuteko txostenean, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek sailkapena kentzeko honako eremu hauek proposatu zituen:

a) Jarduera ekonomiko berrietarako eremua Abanto-Zierbenan, hirigintza iraunkorraren printzipioak

Directrices de Ordenación Territorial vigentes, podrían validarse capacidades residenciales incluso mayores.

La consecuencia final de la aplicación del método de cálculo de las Directrices de Ordenación Territorial es que el planeamiento urbanístico acabará proponiendo mucho más desarrollo residencial que el estrictamente necesario. En definitiva, el método de cálculo de la capacidad residencial máxima utilizado en el planeamiento territorial no promueve un desarrollo sostenible, dado que promueve un innecesario mayor consumo de recursos y lo más probable es que repercuta en una mayor ocupación de suelo que generará mayor movilidad forzada.

2º) Entre los principales objetivos de la Revisión del Plan Territorial Parcial se encuentran evitar la calificación de nuevos suelos y establecer un modelo de hábitat urbano más equilibrado entre las necesidades y la oferta de suelo para vivienda y actividades económicas, que evite la afección al medio natural y rural y la urbanización de nuevos terrenos.

Sin embargo, es un hecho que la Revisión del Plan Territorial Parcial no va a evitar la calificación y urbanización de nuevos terrenos. Delimita un perímetro de crecimiento urbano injustificadamente amplio que, a efectos prácticos, no limita la ocupación de nuevos terrenos en su interior y plantea, expresamente, nuevos desarrollos ocupando suelo natural: en Ortuella se propone un sector de suelo público de unas 30 hectáreas, en Alonsotegi el ámbito de Montealegre, en Zamudio la ampliación del Parque Tecnológico de Zamudio en suelo no urbanizable en el ámbito de Agarre y en Getxo una superficie aproximada de 12 hectáreas para actividades económicas.

A este respecto, la Revisión debería ser coherente con sus propios objetivos, delimitando un nuevo perímetro de crecimiento urbano, concreto y definitivo, que sí limitara la ocupación de nuevos terrenos en su interior y desechando los desarrollos propuestos sobre suelo natural.

3º) En el informe de respuesta a la consulta del órgano promotor respecto al Avance de la Revisión, esta Dirección General de Medio Ambiente propuso para su desclasificación los siguientes ámbitos:

a) Zona para nuevas actividades económicas en Abanto-Zierbena, por ser un desarrollo que no

betetzen ez dituen garapena delako: Zamudioko parke teknologikoaren antzeko eredua da, eta horrek disfuncionaltasun handiak sortzen ditu Txorierriko mugikortasunean; ezin da trenez iritsi, eta zaildu egiten du Galdames eta Montaña-Luzero lurmuturraren arteko lotura ekologikoa.

Eremu hori garatzen ari da, eta Aurrerapenean mugatutako korridore ekologikoa desagertu egin da hasieran onetsitako Berrikuspenaren dokumentazioan, eta ez da mugatu A-8 errepidean azpiegitura berde eta grisaren arteko auzi- edo gatazka-eremurik.

Gutxienez Aurrerapenaren jasota dagoen korridore ekologikoari eutsi beharko litzaioke, eta A-8 errepidean gatazka-eremu bat ezarri.

b) Zamudio eta Loiu artean jardura ekonomiko berrietarako eremua, zati handi baten urak har ditzakeen lurzoruak direlako eta natura-balio oso garrantzitsua dutelako artifizializazio handiko testuinguru batean. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek, Ingurumen Organoaren kontsulten izapidean, Zamudioko Santimami sektorearen Plan Partzialaren garapenak ingurumenean eragingo lituzkeen baldintzei eta eraginei buruzko iritzia eman zuen, honako termino hauetan:

«Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak uste du Zamudioko Santimami Plan Partzialaren garapena birplanteatu behar dela; izan ere, arestian aipatutako balioen gaineko eraginak horiek galtzea ekarriko luke, eta, zalantzarik gabe, saihestu egin behar da». Iritzi horretan biodibertsitateari, paisaiari eta eremuko lurzoruei erreferentzia egiten zen. Loiuiko Dorrelanda sektorearen garapena bideraezina da uholde-arrisku handia jasaten duelako.

Hasieran onetsitako Berrikuspenak ez du aintzat hartzen proposamen hori, eta garapen horri eutsiko lioke. Zona hau desklasifikatzea proposatu beharko litzateke.

c) Aretxaldeko Erreserba Estrategikoa Lezaman.

Hasiera batean onetsitako Berrikuspenak erreserba hori kartografiatzen jarraitzen du, nahiz eta Foru Aldundi honek Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakariitzako foru diputatuaren maiatzaren 4ko 3444/2015 Foru Aginduen deuseztasun osoa deklaratu; foru agindu horren bidez Lezamako Hiri

cumple con los principios de un urbanismo sostenible: constituye un modelo similar al parque tecnológico de Zamudio que genera importantes disfuncionalidades en la movilidad del Txorierri, es inaccesible al tren y dificulta la conectividad ecológica entre la zona minera de Galdames y Montaña-Punta Lucero.

Dicha zona ya está en desarrollo y en la documentación de la Revisión aprobada inicialmente el corredor ecológico delimitado en el Avance ha desaparecido y no se ha delimitado un área de conflicto en la A-8 entre infraestructura verde y gris.

Al menos, debería mantenerse el corredor ecológico del Avance y establecer un área de conflicto en la A-8.

b) Zona para nuevas actividades económicas entre Zamudio y Loiu, por ser suelos en buena parte inundables y de un valor naturalístico muy relevante en un contexto de intensa artificialización. Esta Dirección General de Medio Ambiente se pronunció acerca de los condicionantes ambientales y afecciones que generaría el desarrollo del Plan Parcial del sector Santimami de Zamudio, en el trámite de consultas del Órgano Ambiental en los siguientes términos:

“Desde la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia se considera que debe replantearse el desarrollo del Plan Parcial Santimami en Zamudio ya que la afección a los valores anteriormente señalados supondría una pérdida de los mismos que a todas luces debe evitarse” haciendo referencia a la biodiversidad, paisaje y suelos del ámbito. El desarrollo del sector Dorrelanda de Loiu es inviable por el elevado riesgo de inundación que soporta.

La Revisión aprobada inicialmente no considera esta propuesta y mantendría este desarrollo. Debería proponerse la desclasificación de esta zona.

c) Reserva Estratégica de Aretxalde en Lezama.

La Revisión aprobada inicialmente sigue cartografiando esta reserva, aunque esta Diputación Foral ya declaró la nulidad de pleno derecho de la Orden Foral 3444/2015, de 4 de mayo, del diputado foral de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia, de aprobación definitiva del Plan General de

Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu zen, bai eta haren arau-testua ere.

Zuzendu beharreko akatsa dela ulertzen da.

d) Dentsitate txikiko bizitegi-garapeneko eremua Derioko udalerrian, hirigintza iraunkorraren printzipioak betetzen ez dituen garapena delako: hiri-bilbetik urrun dagoen garapena da, oso dentsitate txikiko eredu bereizi batean oinarritua, derrigorrez ibilgailu motordunen erabilera eta beharrezkoa ez dena behartzen duena.

Hasieran onetsitako Berrikuspenak desklasifikatzea proposatzen du, eta horren aldeko irizpena ematen da.

e) Sakoniko Udondo eta Asua ibarretan une honetan okupaziorik ez duten espazioak, toki edo alde hori gaur egun aukera paregabea delako ingurumena lehengoratzeko. Espazio horiek okupaziorik gabe mantentzeak anbizio handiko azpiegitura berdea eraikitzea ahalbidetuko luke, benetan funtzionala den korridore ekologiko gisa jardungo lukeena artifizializazio handiko egoera eta esparru batean.

Hasieran onetsitako Berrikuspenak ez du proposatzen espazio horiek berariaz desklasifikatzea, eta aukera paregabea galtzen da Bilboko itsasadarraren eremuan anbizioari dagokionez gutxienezkoa izango litzatekeen azpiegitura berde eta funtzionala garatzeko.

Araudiaren 32.2.i) artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, planak eremu horietan espazio nahikoa zehaztea proposatzen da, Asua itsasadarraren trazadurari jarraituz, lotura-korridore gisa identifikatzen baita. Horren xedea itsasadarraren bi aldean arteko konektibitate ekologikoko gune bihurtzea eta, horrela, azpiegitura berde gisa funtzionatzea.

4) Berrikuspenak ez du mugikortasun iraunkorra sustatzen. Bizkaiko errepideen LPSn planifikatutako bide-sarea indarrean dagoela jotzen du, eta horrek Eremu Funtzionaleko bide-azpiegitura handitzen jarraitzea dakar. Gainera, hirigintza jasangarriaren printzipioak betetzen ez dituzten garapenak proposatzen jarraitzeak, aurreko puntuan aipatutakoak bezala, ibilgailu pribatuaren erabilera sustatuko du eta, are gehiago, lurraldeko faunaren konektibitatea okertuko eta zailduko du eta errepideetako paisaia eragin saihestezina areagotuko

Ordenación Urbana del Municipio de Lezama, así como su texto normativo.

Se entiende que es un error que deberá corregirse.

d) Zona de desarrollo residencial de baja densidad en el municipio de Derio, por ser un desarrollo que no cumple con los principios de un urbanismo sostenible: se trata de un desarrollo alejado de la trama urbana y basado en un modelo segregado de muy baja densidad que obliga al uso forzado e innecesario de los vehículos motorizados.

La Revisión aprobada inicialmente propone su desclasificación, lo cual se valora favorablemente.

e) Espacios que en este momento están libres de ocupación en las vegas del Udondo y del Asúa, en Sakoni, por representar, en el momento actual, una oportunidad única para su regeneración ambiental. Mantener esos espacios libres de cualquier tipo de ocupación permitiría construir una ambiciosa infraestructura verde que actuara como corredor ecológico verdaderamente funcional en un contexto de intensa artificialización.

La Revisión aprobada inicialmente no propone la desclasificación expresa de estos espacios, perdiendo una oportunidad única para el desarrollo de una infraestructura verde mínimamente ambiciosa y funcional en el ámbito de la ría de Bilbao.

En concordancia con lo que establece el Artículo 32.2.i) de la Normativa, se propone que el plan defina un espacio suficiente en estos ámbitos, siguiendo el trazado de la ría del Asua, que se identifica como corredor de enlace, para posibilitar su transformación en un espacio de conectividad ecológica entre ambas márgenes de la ría haciendo así efectivo su funcionamiento como infraestructura verde.

4º) La Revisión no promueve una movilidad sostenible. Considera vigente la red viaria planificada en el PTS de carreteras de Bizkaia, lo cual supone seguir ampliando la infraestructura viaria del Área Funcional. Además, continuar proponiendo desarrollos que incumplen los principios de un urbanismo sostenible, como los mencionados en el punto anterior, incentivará el uso del vehículo privado, empeorará, aún más si cabe, la conectividad para la fauna del territorio y aumentará la inevitable afección paisajística de las carreteras por ejecución

du, ezponda eta lubeta handiak egiteagatik.

Berrikuspenean mugikortasun iraunkorragoa sustatzeko neurriak sartzeko ahaleginek (adibidez, oinezkoentzako bizikleta-azpiegitura berria ezartzea) ez dituzte helburuak lortuko hirigintza iraunkorraren printzipioak betetzen ez dituzten garapenak proposatzen jarraitzen den bitartean eta bide-azpiegitura mantentzen edo zabaltzen jarraitzen den bitartean, aparkalekuak barne.

Era berean, ez da garatu Arrontegiko zubiaren alternatiba gisa Ballonti-Artaza arteko etorkizuneko ibai azpiko tunelaren eremu funtzionalaren mugikortasunean eraginik.

Laburbilduz, Berrikuspenean jasotako proposamen guztiak batera aplikatzearen ondorioa ibilgailu pribatuaren erabilera sustatzen jarraituko dela izango da, berotegi-efektuko gasen (BEG), zarataren edo kutsadura atmosferikoaren emisioak areagotzeko probabilitate handiarekin eta hori hausnarketari ekiteko arrazoia izan beharko litzateke Eusko Jaurlaritzak aitortutako larrialdi klimatikoko testuinguru batean.

5) LPSk ez du barne hartzen EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak ezartzen duen jasangarritasun energetikoari buruzko azterlana; azterlan hori lurralde-antolamenduko dokumentuetan sartu beharrekoa da. Bertan, 7. artikuluan definitutako mugikortasun-azterlana sartu beharko da, *garraio pribatuaren erabilerarako alternatibak eta motorizatu gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza bultzatzeko politikak barne*.

Lurralde plangintza partziala eskala egokia da mugikortasunaren azterketa bateratua egiteko, garraio-modu guztiak eta garapen-eremu berrien aurreikuspenak kontuan hartuta.

6) Hondakinen kudeaketari dagokionez, LPSren lurralde eredua ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta lurraldean azpiegitura horiek modu orekatuan garatzeko printzipioetan oinarritzen da.

Planean aurreikusitako garraio- eta urbanizazio-azpiegituren obrek hondeaketa-lur eta -harri soberakinen bolumen izugarria sortuko dute. Material horiek eraikuntza- eta eraipen-hondakinak dira, eta

de nuevos taludes y terraplenes de grandes dimensiones.

Los esfuerzos para introducir medidas para fomentar una movilidad más sostenible en la Revisión (por ejemplo, la implantación de nueva infraestructura peatonal ciclable) no alcanzarán sus objetivos mientras se sigan proponiendo desarrollos que incumplen los principios de un urbanismo sostenible y manteniendo o ampliando la infraestructura viaria, incluidos los aparcamientos.

Asimismo, no se ha desarrollado la influencia en la movilidad del AF del futuro túnel subfluvial entre Ballonti-Artaza como alternativa al puente de Rontegi.

En definitiva, la consecuencia de la aplicación conjunta de todas las propuestas incluidas en la Revisión será que se seguirá incentivando el uso del vehículo privado, con elevada probabilidad de aumentar las emisiones de GEIs, el ruido o la contaminación atmosférica, lo cual en un contexto de emergencia climática declarada por el Gobierno Vasco debiera ser motivo de recapacitación.

5º) El PTP no incluye el estudio sobre sostenibilidad energética que establece la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de la CAPV, a incluir en los documentos de ordenación del territorio. Éste deberá incluir el estudio de movilidad definido en el artículo 7, *incluyendo alternativas al uso del transporte privado y políticas de impulso de la movilidad no motorizada y la no movilidad*.

La planificación territorial parcial es una escala adecuada para realizar un análisis conjunto de la movilidad, considerando todos los modos de transporte y las previsiones de nuevos ámbitos de desarrollo.

6º) Respecto a la gestión de residuos el modelo territorial del PTP se basa en los principios de la minimización del impacto ambiental y el desarrollo de dichas infraestructuras de forma equilibrada en el territorio.

Las obras de infraestructuras del transporte y de urbanización previstas en el Plan generará un ingente volumen de tierras y rocas sobrantes de excavación. Estos materiales constituyen residuos de

EAEn indarrean dagoen araudiaren eta hondakinen plangintzaren arabera kudeatu beharko dira. LPSk ez ditu hondakin horiek hondakin gisa identifikatzen. LPSk eta bere ingurumen-ebaluazioak egoera egokia osatzen dute hondakin horiek behar bezala kudeatzeko behar diren irtenbideak identifikatzeko. Beraz, alderdi horri dagokionez LPSren analisia sakontzea eskatzen da.

7) Ur-hornidurari dagokionez, LPSk jarraibide lotesle gisa ezartzen du *"Beharrezkoa dela 350 litroko zuzkidura bat aurreikustea biztanleko eta eguneko, betiere loteslea izanik"* (85.2.h artikulua). Aurreikuspen hori ez dator bat plangintza hidrologikoaren araudiarekin (indarrean dagoen plan hidrologikoaren 22. artikulua), eta eskaintza sustatzea dakar eskariari eutsi beharrean; beraz, LPSren arauditik kendu beharko litzateke.

8) "Azpiegitura berdearen" kontzeptua ingurumen-politikari dagokio. Berriki "Azpiegitura Berdearen eta Konektibitate eta Lehengoratzeko Ekologikoaren Estrategia Nazionala" onartu da eta 3 urteko epean Eusko Jaurlaritzak dagokion estrategia autonomikoa onartu behar du. Estrategia Nazional horrek azpimarratzen du azpiegitura berde bakarra egongo dela, estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko eskala guztietan osatua, eta, aldi berean, Europako azpiegitura berdearen parte izango dela.

Egoera egokiena litzateke, lehenik eta behin, Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategia onartzea, dagokion kartografia eta erregulazioarekin eta, ondoren, besteak beste, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko gainerako tresna guztiak egokitzea. Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategia onartu aurretik, azpiegitura berdea mugatzen eta arautzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan lurralde-plangintza (ikus onartu berri diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, izapidetzen ari den Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertzako Babesteko eta Antolatzearen Lurraldearen Plan Sektorialaren Berrikuspena eta Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspen hau).

Egoera horretan eta kontserbazioari dagokionez azpiegitura berde koherente eta homogeneo bakarra ezartzearen ondoretarako, proposatzen dugu Berrikuspenaren araudiak berariaz honako hau jasotzea:

construcción y demolición, que será necesario gestionar conforme a las previsiones de la normativa vigente y la planificación de residuos en la CAPV. El PTP no identifica estos residuos como tales. El PTP y su evaluación ambiental conforman un contexto adecuado para identificar las soluciones necesarias para su correcta gestión. Se solicita por tanto la profundización del análisis del PTP en este aspecto.

7º) Respecto al abastecimiento de agua el PTP establece como directriz vinculante *"Prever una dotación necesaria de 350 litros por habitante y día, en todo caso y con carácter vinculante"* (Artículo 85.2.h). Esta previsión no concuerda con la normativa de la planificación hidrológica (Artículo 22 del plan hidrológico vigente) y supone un fomento de la oferta frente a la necesaria contención de la demanda, por lo que debiera retirarse de la normativa del PTP.

8º) El concepto de "infraestructura verde" es propio de la política ambiental. Recientemente se ha aprobado la "Estrategia Nacional de Infraestructura Verde y de la Conectividad y Restauración Ecológicas" y, en el plazo de 3 años, el Gobierno Vasco debe aprobar la estrategia autonómica correspondiente. Dicha Estrategia Nacional remarca que sólo existirá una única infraestructura verde, conformada por las distintas escalas estatal, autonómica y local, que a su vez formará parte de la infraestructura verde europea.

La situación ideal sería que, en primer lugar, se aprobara la Estrategia Vasca de Infraestructura Verde, con su cartografía y regulación correspondiente, y, posteriormente, se fueran adaptando, entre otros, los distintos instrumentos de ordenación territorial y urbanística. En el País Vasco la planificación territorial ya está delimitando y regulando infraestructura verde (véanse las Directrices de Ordenación Territorial recientemente aprobadas, la Revisión del Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en tramitación y la presente Revisión del Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano) antes de aprobar la Estrategia Vasca de Infraestructura Verde.

En esta situación y con el objetivo de establecer una única infraestructura verde coherente y homogénea, en términos de conservación, proponemos que la normativa de la Revisión recoja, expresamente, lo siguiente:

a) Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategiaren azpiegitura berdea zedarritzea, nolanahi ere, Lurralde Plan Partzialean ezarritakoaren gainetik egongo da.

b) Lurralde Plan Partzialean jasotako azpiegitura berdearen erregulazioa aplikagarria izango dela etorkizuneko Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategiak ezartzen duen erregulazioaren aurka egiten ez duen bitartean.

c) Lurralde Plan Partziala etorkizuneko Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategian ezarritakora egokitu beharko dela.

Azkenik, dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, Lurralde Historikoko udalaz gaindiko azpiegitura berdearen udalen arteko kudeaketa eta koordinazioa Bizkaiko Foru Aldundiko ingurumen-organoari egokitu beharko litzaiokeela uste dugu, hain zuzen ere Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura berde-urdinaren eskema diseinatzen ari delako, beste foru-aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta.

9) Babes Berezia kategoriari dagokionez, Berrikuspenak zehaztasunez mugatu beharko luke kategoria hori, eta landa-lana egin beharko litzateke, beharrezkoa izanez gero. Kategoria horren mugaketak behar bezain sendoa izan beharko luke, gerora nahi ez diren berrikuspenak saihesteko.

Era berean, ez litzateke kontraesanik edo koherentzia-ezik egon behar araudian kategoria horri aplikatzeko jasotako jarraibideetan. Adibidez, kategoriaren jarraibide orokorrek baso autoktonoak suntsitzea edo hondatzea ahalbidetzen dute, baso autoktono horiei buruzko gidalerro partikularrek debekatu egiten dutenean. Jakina, Berrikuspenak baso autoktonoak suntsitzea edo hondatzea debekatu behar du.

Hori dela eta, 17. artikulua aldatzea proposatzen da, hura ezabatzeko aukerarik egon ez dadin:

2. Gidalerroak

a) Irizpide nagusia hura kontserbatzea eta hobetzea izango da eta, beraz, horien gainean jardutea dakarten garapenek mugaketa- eta antolamendu-alternatiben azterketa egin beharko dute, jarduketa-eremutik kanpo uztea lehenesteko.

b) Garapen berriak aurreikusita dauden eremuetan eta

a) Que la delimitación de la infraestructura verde de la futura Estrategia Vasca de Infraestructura Verde prevalecerá, en todo caso, sobre lo establecido en el Plan Territorial Parcial.

b) Que la regulación de la infraestructura verde incluida en el Plan Territorial Parcial será de aplicación en tanto en cuanto no contradiga la regulación que establezca la futura Estrategia Vasca de Infraestructura Verde.

c) Que el Plan Territorial Parcial deberá adaptarse a lo que se establezca en dicha futura Estrategia Vasca de Infraestructura Verde.

Por último, para que conste a los efectos oportunos, consideramos que la gestión y coordinación intermunicipal de la infraestructura verde supramunicipal del Territorio Histórico debería corresponder al órgano ambiental de la Diputación Foral de Bizkaia, que ya está diseñando el esquema de la Infraestructura Verde-Azul del Territorio Histórico de Bizkaia, en coordinación con las otras Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco.

9º) Respecto a la categoría Especial Protección, la Revisión debería realizar una delimitación precisa y de dicha categoría, con trabajo de campo en el caso de ser necesario. La delimitación de esta categoría debería ser lo suficientemente consistente para evitar revisiones indeseadas posteriores.

Asimismo, deberían evitarse incoherencias en las directrices de aplicación a esta categoría incluidas en la normativa. Por ejemplo, las directrices generales de la categoría permiten la destrucción o deterioro de los bosques autóctonos cuando las directrices particulares de dichos bosques autóctonos lo prohíben. Evidentemente, la Revisión debe prohibir la destrucción o deterioro de los bosques autóctonos.

Por ello se propone modificar el Artículo 17 de manera que no se posibilite su eliminación:

2. Directrices

a) El criterio principal será su conservación y mejora, por lo que los desarrollos que impliquen una actuación sobre las mismas estarán condicionados a la realización de un estudio de alternativas de delimitación y ordenación en el que se priorice su exclusión del ámbito de actuación.

b) En las áreas donde estén previstos nuevos

azpiegitura-obretan, babes bereziko berezko elementuak eremuko espazio libreen sistemaren erreserba izango dira.

~~c) Baso autoktonoen eta Batasunaren intereseko habitaten kasuan, baldin eta ezin badira jarduketaremutik kanpo utzi eta ezin badira eremu horretako espazio libreen erreserban sartu, erreserba hori ez dagoelako, konpentsazio-neurriak hartu beharko dira habitat horiek beste leku batean birjartzeko aukera emango dutenak.~~

d) Kategoría hau osatzen duten elementuek udal-plangintzaren erreferentzia izan behar dute Babes Berezia kategoría mugatzeko.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da lurzoruari eta hirigintzari buruzko legeriak ezartzen duela ez dela bidezkoa babes-araubide espezifiko baten pean dauden lursailen hirigintza-eraldaketa, baldin eta lursail horiek lurralde-antolamenduak, legeria sektorialak edo hirigintza-antolamenduak nekazaritza-, basogintza- edo -abeltzaintzako balioagatik kalifikazio hori ematen badie euren baliabide naturalak ustiatzeko dituzten aukerengatik edo euren paisaia-, historia- eta kultura-balioengatik, fauna, flora edo oreka ekologikoa babesteko (Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 13.2.a) artikulua).

LPSren matrizeak, oro har, EP kategorian abeltzaintza-erabilera debekatzen du. Kontraesankorra izan daiteke; izan ere, lehentasunezko Batasunaren intereseko habitat batzuk nolabaiteko abere-zamaren mende daude: 4030*, 6230*, 6210*. Hori dela eta, erregulazio hori berrikusteko eskatzen da.

10) Basordako kalaren eremuari dagokionez, hasieran onetsitako Berrikuspenak Aurrerapenean ezarritakoa mantentzen du eta haren garapen ekonomikoa lehenesten du. Laburbilduz, Berrikuspenak indarrean dauden Lurralde Plan Partzialak eta Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak eremuari emandako ingurumen-babesaren atzerakada dakar.

Deigarria da Berrikuspenaren baieztapen hau:

"Izan ere, nahiz eta eztabaidagarria izan, instalazioak eraistearen alternatibak beste ingurumen-arazo bat ekarriko zukeen, inbertsio ez-produktibo izugarria eta baliabide baten galera."

desarrollos y en las obras de infraestructuras, los elementos propios de Especial Protección constituirán la reserva de sistema de espacios libres del ámbito.

~~c) En el caso de los bosques autóctonos y los hábitats de interés comunitario que no sea posible su exclusión del ámbito de actuación ni sea posible su integración en la reserva de espacios libres del ámbito por la no existencia de dicha reserva, se deberán adoptar medidas compensatorias que posibiliten la reposición de estos hábitats en otra localización.~~

d) Los elementos que constituyen esta categoría deben servir de referencia al planeamiento municipal para delimitar la categoría Especial Protección.

En todo caso debe tenerse en cuenta que la legislación del suelo y urbanismo establece que es improcedente la transformación urbanística de los terrenos sometidos a un régimen específico de protección a los que ordenación del territorio, la legislación sectorial, o la ordenación urbanística les otorgue tal calificación por su valor agrícola, forestal o ganadero, por las posibilidades de explotación de sus recursos naturales o por sus valores paisajísticos, históricos y culturales, para la defensa de la fauna, la flora o el equilibrio ecológico. (Artículo 13.2.a) de la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo.

La matriz del PTP prohíbe con carácter general el uso ganadería en la categoría EP. Puede resultar contradictorio, ya que algunos hábitats de interés comunitario prioritario dependen de cierta carga ganadera: 4030*, 6230*, 6210*, por lo que se solicita la revisión de esta regulación.

10º) Respecto al ámbito de la cala de Basordas, la Revisión aprobada inicialmente mantiene lo establecido en el Avance y prioriza su desarrollo económico. En definitiva, la Revisión supone una regresión en la protección ambiental otorgado al ámbito por el Plan Territorial Parcial y el Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral gentes.

Llama la atención la siguiente afirmación de la Revisión:

"Y es que, aunque pueda resultar discutible, la alternativa de la demolición de las instalaciones hubiera supuesto otro problema medioambiental, una enorme inversión improductiva y la pérdida de un recurso."

Hain zuzen ere, baieztapen hori oso eztabaidagarria da, eraisteko eta ingurumena leheneratzeko edozein jarduketa bideraezintzat jotzea ekarriko bailuke. Espazio artifizializatu bat birnaturalizatzea ez litzateke "inbertsio ez-emankortzat" hartu behar.

Ingurumen-arloko atzerapenik ezaren printzipioa aplikatuz, Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenak Basordako kalaren lehengoratzeari lehentasuna emateko irizpideari eutsi beharko lioke.

11) *Energia-ereduari dagokionez, araudiaren 87. orrialdean honako hau adierazten da jarraibide gisa:*

«h) Gas naturalaren sarea biztanlegune guztietara zabaltzea.»

Berrikuspenak ez luke berariaz sustatu behar erregai fosil baten bangketa-sareg zabaltzea.

12) Berrikuspenean egiten den "Urdulizko saihebsbide berrian sartuz BI-2704 errepidearen, Unbegana-Urduliz-Plentzia tartea, hobekuntza" erreferentziari dagokionez eta dagozkion ondorioetarako, "Unbeko korridorea, Unbegana-Pozozabale-Mendiondo tartea, eraikitze proiektuaren" ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren administrazio-egoera proiektu horren ingurumen-ebaluazioak honako hau ezarri zuela da:

"Proiektutik kendu egingo da Urdulizko saihebidearen hasierako zatia eraikitze aurreikuspena, ez baita bermatzen, modu eraginkorrean, ezta korridorea egiteko lanetan ere bisoi europarraren kontserbaziorako interes bereziko eremuari kalterik egingo ez zaionik."

Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak 2021eko urriaren 15ean galdu du indarra eta, beraz, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura.

13) Itsasertzeko Lurralde Plan Sektoriala berrikusteko prozesuaren arabera, Aurrerapenaren dokumentuan azaltzen den irizpidea txertatzea proposatzen da: "Plan honetatik ondorioztatzen den irizpide orokorra da hirigintzako garapenak edo hirigintza-garapen berrien potentziala duten eremuen kalifikazioa saihestea RCP 8.5 egoeran 2100. urterako uholde-arriskuaren eraginpean dauden lurraldeetan".

Efectivamente, dicha afirmación es muy discutible ya que llevaría a considerar como inviable cualquier actuación de demolición y restauración ambiental. Renaturalizar un espacio artificializado no debiera considerarse como una "inversión improductiva"

En aplicación del principio de no regresión en materia ambiental, la Revisión del Plan Territorial Parcial debería mantener el criterio de priorizar la recuperación de la cala de Basordas.

11º) Respecto al modelo energético, en la página 87 de la Normativa se señala como directriz lo siguiente:

"h) Extender la red de gas natural a todos los núcleos de población."

La Revisión no debería promover, expresamente, la ampliación de la red de distribución de un combustible fósil.

12º) Respecto a la referencia en la Revisión a la "Mejora en la BI-2704, en el tramo Unbegana-Urduliz-Plentzia, incluyendo la nueva Variante de Urduliz" y a los efectos oportunos, la situación administrativa de la evaluación de impacto ambiental del "Proyecto de construcción del corredor de Unbe, tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo" es que la evaluación ambiental de dicho proyecto estableció lo siguiente:

"Se suprimirá del proyecto la previsión de construir el tramo de inicio de la variante de Urduliz, dado que no se garantiza, de forma efectiva, la ausencia de afecciones al área de interés especial para la conservación del visón europeo también durante las obras de ejecución del corredor."

La declaración de impacto ambiental ha perdido su vigencia el 15 de octubre de 2021 y, por tanto, el promotor deberá iniciar nuevamente el procedimiento de evaluación de impacto ambiental del proyecto.

13º) Conforme al proceso de revisión del Plan Territorial Sectorial de litoral, se propone incorporar el criterio que se plasma en el documento de Avance: “El criterio general que se desprende del presente Plan es de evitar desarrollos urbanísticos o la calificación de ámbitos con potencial de nuevos desarrollos urbanísticos en los territorios afectados por la inundabilidad en el escenario RCP 8.5 para el año

2100".

Klima-aldaketaren ondorioek eragingo dieten sektore garatuei dagokienez, LPSk identifikatuak, egokitzapen-neurriak hartuko dira kontuan, marea-mailaren igoerak, uholde-arriskuak edo olatuek eragindako kaltearen arabera.

Respecto a los sectores ya desarrollados que se verán afectados por los efectos del cambio climático, identificados por el PTS, se estará a las medidas de adaptación en función de la afección del incremento del nivel de marea, riesgo de inundabilidad o afección por el oleaje.

Horretarako, Itsasertzeko Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapenaren dokumentuan gune kritikotzat jotzen dira honako hauek:

A este efecto, se consideran espacios críticos en el documento de Avance del PTS del Litoral:

- a) Hondartza-eremuan olatuek gehien eragiten dituzten eremuak honako hauetan metatzten dira:

- Getxon, Ereaga hondartzan.
- Gorlizen, hondartzako pasealekuan

- b) Kostaldean olatuek gehien eragiten dituzten eremuak hongko hauetan metatzeko dira:

- Portuetako dikeetan eta itsasora irekitako bideratzeetan.

- c) Identifikatutako hiri-hondartzen eremuak
hongako hauek dira:

- Arena
- Ereaga
- Gorliz

- a) Los Ámbitos con mayor impacto por ola en la zona de playas se concentran en:

- En Getxo en la playa de Ereaga
- En Gorniz en el paseo de la playa

- b) Los Ámbitos con mayor impacto por ola en la zona de costa se concentran en:

- En los diques de los puertos y encauzamientos abiertos al mar

- d) Los Ámbitos de las playas urbanas identificadas son:

- La Arena
- Ereaga
- Gorliz

14) 45. orrialdean, c) Metropoli-Parkeak eta Ibai-Parkeak falta dira, eta A.IV Eranskinean: Metropoli-Parkeak eta Ibai-Parkeak, etorkizuneko Nerbioiko ibaiertzeko parkea, Galindo ekialdeko eremuaren barruan (Barakaldo). Era berean, B.IX. eranskinean ez dira aipatzen ANTOLAMENDU-ARAUAK: IZAERA ESTRATEGIKOKO ARLOETAKO LABURPEN-FITXAK. "Bilboko Itsasadarreko" Izaera Estrategikoko Eremua.

14º) Falta en la página 45 c) Parques Metropolitanos y Parques Fluviales y en el Anexo A.IV: Parque Metropolitano y Parques Fluviales el futuro Parque de ribera del Nervión dentro del área de Galindo este (Barakaldo). Asimismo, no aparece citado en el Anexo B.IX. LAS NORMAS DE ORDENACIÓN: FICHAS RESUMEN POR ÁREAS DE CARÁCTER ESTRATÉGICO. Área de Carácter Estratégico de la "Ría de Bilbao".

15) Lurralde eta Hirigintza Iraunkortasuneko Adierazleen A.VI eranskinean ez dira jasotzen Garapen Jasangarriko Helburuetako (GJH) batzuk garatzen dituzten adierazleak, hala nola hiri-ekosistemaren egoerari dagozkionak (adibidez,

15º) En el Anexo A.VI de Indicadores de Sostenibilidad Territorial y Urbanística no se recogen indicadores que desarrollen algunos de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) como los correspondientes al estado del ecosistema urbano

kutsadura akustikoa).

(por ej. contaminación acústica).

Sin./Fdo.: JUAN MARCOS GUTIERREZ CIURANA - 2021-12-23

INGURUMEN IRAUNKORRA ETA INGURUMEN HEZKUNTZA BULTZATZEKO ATALA-REN INGURUGIRO KALITAKEKO GOI MAILAKO TEKNIKARI, TÉCNICO/A SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL DE SECCIÓN DE SOSTENIBILIDAD Y EDUCACIÓN AMBIENTAL

Sin./Fdo.: FRANCISCO JAVIER CACERES LAFUENTE - 2021-12-23

INGURUMENAREN GAI NEKO ERAGINAREN EBALUAZIO RAKO ATALA-REN INGURUGIRO KALITAKEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA, TÉCNICO/A SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL DE SECCIÓN DE EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL

Sin./Fdo.: XABIER ARANA EIGUREN - 2021-12-23

INGURUMEN IRAUNKORRA ETA INGURUMEN HEZKUNTZA BULTZATZEKO A. JEFE/A SECCIÓN DE SOSTENIBILIDAD Y EDUCACIÓN AMBIENTAL

Sin./Fdo.: FRANCISCO JAVIER ITURRATE GARRELL - 2022-01-04

INGURUMEN NEKO ERAGINAREN EBALUAZIO RAKO ATALEKO BURUA, JEFE/A SECCIÓN DE EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL

Sin./Fdo.: UNAI MARCOS GANGOITI CISCAR - 2022-01-04

INGURUGIRO KALITATEAREN ZERBITZUKO BURUA, JEFE/A SERVICIO DE CALIDAD AMBIENTAL

Sin./Fdo.: JOSU BILBAO BEGOÑA - 2022-01-05

INGURUMEN NEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA, DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

